Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3685

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Zamudioko (Bizkaia) «Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga» (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología) fundazioaren estatutu batzuen aldaketa eta testu bategina inskribatzeko dena.

Ikusi da Zamudioko (Bizkaia) Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga» (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») fundazioaren espedientea, estatutu batzuen aldaketa eta testu bategina onartu eta inskribatzeari buruzkoa. Hona hemen

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2010eko martxoaren 24an eskaera bat iritsi zen Justizia eta Herri Administrazio Sailera, Javier Cabezudo Pueyok sinatzen zuen eskaera, Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») fundazioaren izenean eta ordez, eta zera eskatzen zuen: fundazioaren patronatuak fundazioaren estatutuen aldaketari buruz hartutako erabakiak inskribatzea. Erabaki horiek, hain zuzen ere, jarraian adierazten diren egunetan egin zituzten bileretan hartu ziren: 2000ko ekainaren 21a (9. artikulua aldatu zen), 2001eko ekainaren 26a (9. artikulua berriro aldatu zen), 2002ko azaroaren 28a (1. artikulua aldatu zen), 2009ko maiatzaren 14a (1., 4., 6., 9. eta 13. artikuluak). Halaber, estatutuen testu bategina inskribatzeko ere eskatzen zuen, baita fundazioaren patronatuari, patronoei eta horien ordezkari diren pertsona fisikoei buruzko aldaketak ere. Hori guztia ondoko titulu publiko honetan jasota dago:

2010eko martxoaren 16an, José María Villate Blancok –fundazioaren izenean– emandako eskritura publikoaren bi kopia baimendu; Bilboko notario Ignacio Alonso Salazarren aurrean eman zuen eskritura publiko hori (protokolo-zenbakia: 532).

Eskritura horri jarraiki, publiko egin ziren fundazioaren patronatuak hartutako erabakiak, tituluak duen ziurtagirian adierazitako edukiei buruzkoak. Ziurtagiri hori 2010eko otsailaren 16an eman zuen, Zamudion, Innobasque Elkartearen ordezkari eta pa-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3685

ORDEN de 20 de mayo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscriben diversas modificaciones estatutarias y el texto refundido de «Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga» (anteriormente denominada «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología»), de Zamudio (Bizkaia).

Visto el expediente de la denominada Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (anteriormente denominada «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología»), de Zamudio (Bizkaia), de aprobación e inscripción de modificaciones estatutarias y texto refundido de las mismas, atendiendo a los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Que con fecha 24 de marzo de 2010 tiene entrada en este Departamento de Justicia y Administración Pública solicitud firmada por D. Javier Cabezudo Pueyo, en nombre y representación de la Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (anteriormente denominada «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») de inscripción, entre otros, de los acuerdos adoptados por el Patronato de la Fundación en relación con la modificación de sus Estatutos Fundacionales, en sus reuniones de fecha: 21 de junio de 2000 (modificación del artículo 9), 26 de junio de 2001 (nueva modificación del artículo 9), 28 de noviembre de 2002 (modificación del artículo 1), 14 de mayo de 2009 (artículos 1, 4, 6, 9 y 13, así como el texto refundido de los Estatutos); además de los correspondientes a variaciones diversas del Patronato de la Fundación, Patronos y personas físicas representantes de los mismos; todos ellos contenidos en el título público que adjunta:

Dos copias autorizadas de la escritura pública otorgada por otorgada por D. José María Villate Blanco, en nombre y representación de la Fundación, el día 16 de marzo de 2010 ante el Notario de Bilbao, D. Ignacio Alonso Salazar, bajo su número de protocolo 532.

En virtud de dicha escritura se elevan a público los acuerdos del Patronato de la Fundación de mencionados contenidos en la certificación que el título incorpora, expedida en Zamudio (Bizkaia) el día 16 de febrero de 2010 por D. José María Villate Blanco,

tronatuko idazkari José María Villate Blancok, Tekniker Fundazioaren ordezkari eta patronatuko lehendakari Alejandro Bengoa Gorosabelen oniritziarekin.

Titulu horrek berekin darama, halaber, fundazioaren estatutuen testu bategina.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko zerbitzu teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, ebazpen-proposamena egin. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legeko 36.3 eta 40. artikuluetan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko, Lehendakariak maiatzaren 8an eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) paragrafoan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan eskatutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 44. artikuluan eskatutakoak. Azken erregelamendu hori ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen.

Aipatu artikuluak eta aplikagarriak diren gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») fundazioaren estatutuen 1., 4., 6., 9. eta 13. artikuluen aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan irekita duen orrian inskribatzea –patronatuaren osaerari eta zenbait patronoren pertsona ordezkariei dagokienez egin diren aldaketekin batera, zeinak adi-

persona física representante de Asociación Innobasque, Agencia Vasca de Innovación, Secretario del Patronato, con el visto bueno de D. Alejandro Bengoa Gorosabel, persona física representante de la Fundación Tekniker, Presidente del Patronato.

Dicho título incorpora además, el texto refundido de los Estatutos Fundacionales.

Segundo.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, que a su vista han elevado Propuesta de Resolución, atendiendo a los siguientes.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del presente expediente de modificación estatutaria sobre la base de los artículos 36.3 y 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, y 4 del Decreto 100/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco; el artículo 9.1.e) del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y el artículo 4.1 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– Al presente expediente se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 44 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos los preceptos citados y demás normas de general aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación de los artículos 1, 4, 6, 9 y 13 de los Estatutos Fundacionales así como el texto refundido de los Estatutos de la Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (anteriormente denominada «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología»).

Segundo.– Inscribir en la hoja registral abierta a la Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (anteriormente denominada «+») en este Registro de Fundaciones del País Vasco, simultáneamente a la inscripción de las variaciones en la composición del Patronato y de las personas físicas representantes de varios Patronos contenidas en el título público que se

erazitako titulu publikoan jasota baitaude– fundazioaren estatutuen 1., 4., 6., 9. eta 13. artikuluen aldaketa, baita Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología» fundazioaren estatutuen testu bategina ere, betiere, 2010eko otsailaren 16an Zamudion (Bizkaia) emandako ziurtagiriaren arabera. Ziurtagiri hori José María Villate Blancok eman zuen –Innovasque Elkartearen, alegia, Berrikuntzaren Euskal Agentziaren ordezkaria eta patronatuko idazkaria–, Alejandro Bengoa Gorosabelen oniritziarekin –Tekniker Fundazioaren ordezkaria eta patronatuko lehendakaria–. Ziurtagiri hori jasota dago 2010eko martxoaren 16an Bilboko notario Ignacio Alonso Salazarren aurrean emandako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 532). Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (lehen «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») fundazioaren estatutuen 1., 4., 6. 9. eta 13. artikuluak eta testu bategina titulu publikoan jasota dagoen bezala idatzita daude.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

refiere, la modificación de los artículos 1, 4, 6, 9 y 13 de los Estatutos Fundacionales así como el texto refundido de los Estatutos de la Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (anteriormente denominada «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología»), de conformidad con el certificado expedido en Zamudio (Bizkaia) el día 16 de febrero de 2010 por D. José María Villate Blanco, persona física representante de Asociación Innobasque, Agencia Vasca de Innovación, Secretario del Patronato, con el visto bueno de D. Alejandro Bengoa Gorosabel, persona física representante de la Fundación Tekniker, Presidente del Patronato, contenido en la escritura pública autorizada el día 16 de marzo de 2010 ante el Notario de Bilbao, D. Ignacio Alonso Salazar, bajo su número de protocolo 532. Dichos artículos 1, 4, 6, 9 y 13 y el texto refundido de los Estatutos de la Fundación Centros Tecnológicos-Iñaki Goenaga (anteriormente denominada «Fundación Centros Tecnológicos para el Fomento de la Tecnología») quedan redactas en los términos que figuran en el título público.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de mayo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.